

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 842/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA, 2006ko maiatzaren 17koa, berotegi-efektuko gas fluordun batzuei buruzkoa.

Itzulpen hau Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Itzulpenak ez du balio juridikorik, eta Europar Batasuneko erakundeek ez dute horrekiko erantzukizunik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hau da : «*Reglamento (CE)842/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de mayo de 2006, sobre determinados gases fluorados de efecto invernadero*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 161 de 14/6/2006*)

842/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILURENA,

2006ko maiatzaren 17koa,

berotegi-efektuko gas fluordun batzuei buruzkoa

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK

transferentzia antropogeniko arriskutsuak egotea eragozten duen mailan, hain zuzen.

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak, eta, batez ere, 175. artikuluko 1. paragrafoa eta 95. artikulua, erregelamendu honetako 7., 8. eta 9. artikuluekin lotutakoak, aztertu dituzte.

Batzordearen proposamena aztertu dute.

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾.

Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozedurari jarraituz ⁽²⁾, Adiskidetze Komiteak 2006ko martxoaren 14an onartutako testu bateratua aztertu dute.

Eta kontuan hartu dute hau guztia:

- (1) Ingurumen-arloan egin den Erkidegoko Ekintzako Seigarren Programak ⁽³⁾ klima-aldaketari eman dio ekintzarako lehen tasuna. Programa horrek dioenez, Erkidegoak konpromisoa hartu zuen 2008tik 2012ra bitartean berotegi-efektuko gas-isurketak % 8 murrizteko 1990eko mailekiko; eta epe luzeagora, berotegi-efektuko gas-isurketak % 70 murriztu beharko ditu, guztira, 1990eko mailekiko.
- (2) Kontseiluaren 1993ko abenduaren 15eko 94/69/EE Erabakia Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Abiaturu Ituna egiteari buruzkoa zen eta haren bidez onartu zen Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Abiaturu Ituna ⁽⁴⁾. Itun horren helburu nagusia atmosferan dauden berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak maila batean egonkortzea da, klima-sisteman

- (3) Kontseiluaren 2002/358/EE Erabakiak, 2002ko apirilaren 25ekoak, onartu egin zuen Europako Erkidegoaren izenean Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Abiaturu Ituneko Kyotoko Protokoloa, eta han hartutako konpromiso guztiak betetzeko konpromisoa hartu zuen ⁽⁵⁾. Erabaki horrek Kyotoko Protokoloan aipatutako berotegi-efektuko gasen emisio antropogenikoak 1990eko mailetatik % 8 jaistera behartzen ditu Erkidegoa eta estatu kideak 2008tik 2012ra bitartean.

- (4) Kyotoko Protokoloan eta erregelamendu honetan aztertutako berotegi-efektuko gas fluordun gehienak atmosfera berotzeko potentzial handia dute.

- (5) Neurriak hartu beharra dago berotegi-efektuko gas fluordunen emisioak ekiditeko eta haiek gutxienez murrizteko, zuzentarau hauek betetzeari utzi gabe: Kontseiluaren 75/442/EEE Zuzentaraua, 1975eko uztailaren 15ekoa, hondakinei buruzkoa ⁽⁶⁾; Kontseiluaren 96/61/EE Zuzentaraua, 1996ko irailaren 24koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa ⁽⁷⁾; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/53/EE Zuzentaraua, 2000ko irailaren 18koa, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa ⁽⁸⁾; eta Europako Parlamentuaren 2002/96/EE Zuzentaraua, 2003ko urtarrilaren 27koa, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei (GEEH) buruzkoa ⁽⁹⁾.

¹ 2004-04-30eko C 108 AO, 62. or.

² Europako Parlamentuaren 2004ko martxoaren 31ko irizpena (2004-04-29ko C 103 E AO, 600. or.), 2005eko ekainaren 21eko Kontseiluaren Jarrera Bateratua (2005-07-26ko C 183 E AO, 1. or.) eta 2005eko urriaren 26ko Europako Parlamentuaren Jarrera (ez da argitaratu oraindik Aldizkari Ofizialean). Europako parlamentuaren lege-bazpena, 2006ko apirilaren 6koa, eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko apirilaren 25ekoa.

³ 1600/2002/EE Erabakia, Europako parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko uztailaren 22koa, ingurumen-arloan Erkidegoko Ekintzarako Seigarren Programa arautzen duena (2002-09-10eko L 242 AO, 1. or.).

⁴ 1994-02-07ko L 33 AO, 11. or.

⁵ 2002-05-15eko L 130 AO, 1. or.

⁶ EO L 194, 1975-07-25ekoa, 39. or. Zuzentarau hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 Erregelamenduak (EE) aldatu zuen azkenekoz (L EO L 284, 2003-10-31koa, 1. or.).

⁷ EO L 257, 1996-10-10ekoa, 26. or. Zuzentarau hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 166/2006 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen azkenekoz (EO L 33, 2006-02-04koa, 1. or.).

⁸ EO L 269, 2000-10-21ekoa, 34. or. Zuzentarau hori Kontseiluaren 2005/673/EE Erabakiak aldatu zuen azkenekoz (EO L 254, 2005-09-30ekoa, 69. or.).

⁹ EO L 37, 2003-02-13koa, 24. or. Zuzentarau hori 2003/108/EE zuzentarauak aldatu zuen azkenekoz (EO L 345, 2003-12-31koa, 106. or.).

- (6) Erregelamendu honen helburu nagusia Kyotoko Protokoloan aipatutako berotegi-efektuko gas fluordunen emisioak murriztea da, eta, hala, ingurumena babestea. Ondorioz, oinarri juridikoak Tratutuko 175. artikuluko 1. paragrafoak izan behar du.
- (7) Dena dela, egokia litzateke Tratutuko 95. artikuluan oinarrituz Erkidegoan neurriak hartzea ere, gai hauen inguruko baldintzak bateratzeko: berotegi-efektuko gas fluordunak erabiltzea eta berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten produktuak eta tresnak merkaturatzea eta etiketatzea. Merkaturatze- eta erabilera-murriztapenak egokitzen joko dira berotegi-efektuko gas fluordunen zenbait aplikaziotarako, baldin eta alternatiba bideragarriak badaude eta ezinezkoa bada euste- eta berreskuratze-jarduerak hobetzea. Zenbait industria-sektoreen ekimen boluntarioak kontuan hartu behar dira, bai eta alternatibak sortzeko lanean ari direla ere.
- (8) Erregelamendu hau aplikatzeak eta betetzeak lagundu egin behar dio teknologia-berrikuntzari, bada, teknologia alternatiboak etengabe garatzera eta jada badauden teknologia ekologikoetara igarotzeko bultzatuko gaitu.
- (9) Estatu kideek, berreskuratutako berotegi-efektuko gas fluordunak mugaz gaindi lekualdatzeko erraztasunak eman behar dituzte, Erkidego barruan suntsitu edo birsortze aldera, Europako Parlamentuaren eta hondakinak lekualdatzeari buruzko Batzordearen Erregelamenduari jarraiki ⁽¹⁾.
- (10) II. eranskinean banan-banan aipatzen diren berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten produktuak eta tresnak merkaturatzea ez dator bat Erkidegoak eta bere estatu kideek klima-aldaketa dela-eta dituzten helburu eta konpromisoekin; beraz, produktu eta tresna horien merkaturatzea murriztu egin behar da. Berdin egin behar litzateke berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten beste produktu eta tresna batzuekin ere, eta hortaz, II. eranskina handitzeko premia aztertu behar da berriro, betiere ingurumenerako onurak, bideragarritasun teknikoak eta kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlazioa kontuan hartuz.
- (11) 2002/358/EE Erabakiaren II. eranskinean helburu desberdinak finkatu ziren estatu kide jakin batzuetarako, eta estatu bakoitzak bere estrategiak hartu ditu helburu horiek lortzeko. Estatu kideek gai izan behar dute helburu horiek lortzeko hartutako neurri nazionalak eusteko epe mugatu batean, helburuok Tratutuko 95. artikuluen baitan lortzeko.
- (12) Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Abiaburu Ituna, Kyotoko Protokoloa eta 2002/358/EE Erabakia direla-eta Erkidegoak eta estatu kideek hartutako konpromisoak betetzen laguntze aldera, bi dokumentu hauek onartu eta *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu behar dira aldi berean: alde batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/40/EE Zuzentaraua, 2006ko maiatzaren 17koa, Motor-ibilgailuetako aire egokituaren sistemetatik datozen emisioei buruzkoa eta Kontseiluaren 70/156/EEE Zuzentaraua aldatzen duena ⁽²⁾; eta bestetik, erregelamendu hau. Izan ere, biek laguntzen dute berotegi-efektuko gas fluordunen emisioak gutxienekora murrizten.
- (13) Erregelamendu honetako xedapenak kontrolatu, ebaluatu eta berrikusteko neurriak aurreikustea komeni da.
- (14) Estatu kideek zehaztu egin behar dute zer zigor aplikatu erregelamendu hau hautsiz gero, eta ziurtatu egin behar dute aplikatuko direla. Zigorrek eraginkorrak, proportzionatuak eta disuasiozkoak izan behar dute.
- (15) Erregelamendu honek errespetatu egiten ditu oinarriko eskubideak eta aintzat hartzen ditu, zehazki, Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunean onartutako printzipioak.
- (16) Estatu kideak ez daude erregelamendu honetako helburuak askitasunez betetzeko moduan; hau da, berotegi-efektuko gas fluordun jakinen isurketa-mailari eusteko eta horiei buruzko informazioa eskuratzeko egokieran. Izan ere, ez dute ahalmenik berotegi-efektuko gas fluordun jakin batzuk dituzten produktu eta tresnen erabilera eta merkaturatzea kontrolatzeko, ingurumena babestu eta barne merkatuari euste aldera. Ondorioz, Erregelamendu honen norainokotasunari eta efektuei erreparatuta, Europar Batasunetik lan egitea komeni da, Erkidegoak arazo horri ekiteko neurriak har baititzaie, Tratutuaren 5. artikuluan araututako subsidiarotasun-printzipioaren baitan. Artikulu horretan azaldutako proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, zuzentarau hau ez doa helburu horiek lortzeko premiazkoa dena baino haratago.
- (17) Egokia da erregelamendu hau betetzeko premiazko neurriak onartzea, erabaki honi jarraiki: Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakia, 1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak finkatzen dituena ⁽³⁾.

HORRENBESTEZ, ERREGELAMENDU HAU
ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aplikazio-esparrua

¹ Oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu.

² Ikus Egunkari Ofizial honen 12. orrialdea.

³ EO L 184, 1999-07-17koa, 23. or.

Erregelamendu honek gai hauek lantzen ditu: I. eranskineko zerrendan datozen berotegi-efektuko gas fluordunak kontrolatu, erabili, berreskuratu eta suntsitzea, gas horiek dituzten produktu eta tresnak etiketatzea eta deuseztatzea, gas horiei buruzko datuak jakinaraztea, 8. artikuluan ageri diren erabilerak kontrolatzea, 9. artikuluan eta II. eranskinean aipatutako produktu eta tresnen merkaturatzea debekatzea, eta erregelamendu honetan aipatutako jarduerak egiten dituzten langileak eta enpresak prestatzea eta ziurtagiria ematea.

75/442/EEE, 96/61/EE, 2000/53/EE eta 2002/96/EE zuzentzarauetan araututakoa betetzeari utzi gabe aplikatuko da erregelamendu hau.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honetan kontzeptuek esanahi hauek dituzte:

- 1) «berotegi-efektuko gas fluordunak»: I. eranskineko zerrendan agertzen diren hidrofluorokarbueroak (HFC), perfluorokarbueroak (PFC) eta sufre hexafluoruroak (SF₆), bai eta substantzia horiek dituzten prestakinak ere. Hortik kanpo geldituko dira, ordea, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2000ko ekainaren 29an ozono-geruza agortzen duten substantziei buruz onartutako 2037/2000 (EE) Erregelamenduaren arabera araututako substantziak ⁽¹⁾.
- 2) «hidrofluorokarbueroa»: konposatu organikoa da, karbonoz, hidrogenoz eta fluorrez eratuta dago eta sei karbono-atomo edo gutxiagoko molekula du.
- 3) «perfluorokarbueroa»: konposatu organikoa da, karbonoz eta fluorrez bakarrik eratuta dago eta sei karbono-atomo edo gutxiagoko molekula du.
- 4) «atmosfera berotzeko potentziala»: berotegi-efektuko gas fluordun batek klima berotzeko duen potentziala karbono dioxidoarenarekin konparatuta. Atmosfera berotzeko potentziala (ABP) lortzeko, gas kilogramo batek duen berotzeko potentziala hartu eta CO₂ kilogramo batenarekin alderatzen da 100 urteko epea hartuta. I. eranskinean ageri diren ABP_i buruzko zifrak Klima-aldaketako Adituen Gobernu arteko Taldeak eginiko Hirugarren Ebaluazio Txostenean argitaratutakoak dira («IPCCren ABP balioak 2001erako») ⁽²⁾.
- 5) «prestakina»: Erregelamendu honetan jasotako betebeharreri dagokienez —suntsipena izan ezik—, bi substantzia edo gehiagoren nahasketa da eta horietako batek berotegi-efektuko gas fluorduna izan behar du, prestakinak atmosfera berotzeko gutzira duen potentziala 150 baino txikiagoa denean salbu. Prestakinaren atmosfera berotzeko potentziala ⁽³⁾ I. eranskineko 2. paragrafoaren arabera zehaztuko da.
- 6) «operadorea»: Erregelamendu honek hartzen dituen ekipamenduen eta sistemen funtzionamendu teknikoan benetako aginpidea duen pertsona fisiko edo juridikoa. Egoera zehatz batzuetan, estatu kideak jabea izendatu ahal izango du operadoreari dagozkion betebeharren arduradun.
- 7) «merkaturatzea»: berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten edota gas horien arabera funtzionatzen duten produktuak edo tresnak hirugarren baten esku uztea Erkidegoaren barruan eta lehen aldiz, kostu bidez edo doan; Erkidegoaren aduana-eremura eginiko inportazioak barne hartzen ditu.
- 8) «erabilerara»: berotegi-efektuko gas fluordunak erabiltzea erregelamendu honetan jasotako produktu eta tresnak ekoizterakoan, kargatzerakoan, konpontzerakoan edo mantentzerakoan.
- 9) «bero-ponpa»: airetik, uretatik edo lurretik beroa temperatura baxuan erauzi eta beroa ematen duen tresna edo instalazioa.
- 10) «ihesak detektatzeko sistema»: tresna kalibratu mekanikoa, elektrikoa edo elektronikoa berotegi-efektuko gas fluordunen ihesak detektatzeko, eta detektatuz gero, operadoreari ohartarazteko.
- 11) «hermetikoki itxitako sistema»: hozgarria duten pieza guztiak soldadurez, bridez edo antzeko konexio iraunkor batez finkatuta dituen sistema; balbula babestuak edo irteera-zulo babestuak eduki ahal izango ditu ondo konpondu edo eliminatzeko, eta ihes-indizeak (saiakuntza bidez zehaztua) urtean 3 gramo baino txikiagoa izan behar du onartutako gehieneko presioaren gutxienez % 25aren pareko presiopean dagoenean.
- 12) «edukiontzia»: batez ere, berotegi-efektuko gas fluordunak garraiatu edo biltegitratzeko sortutako produktua.
- 13) «edukiontzi birkargaezina»: edukiontzi-mota bat, honako hauek egiteko pentsatuta ez dagoena:

¹ EO L 244, 2000-09-29koa, 1. or. Erregelamendu hori Batzordearen 29/2006 Erregelamenduak (EE) aldatu zuen azkenekoz (EO L 6, 2006-01-11koa, 27. or.).

² Klima-aldaketari buruzko IPCCren Hirugarren Ebaluazio-txostena, 2001ekoa. Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Aditu Taldearen Txostena (<http://www.ipcc.ch/pub/reports.htm>).

³ Prestakinetak berotegi-efektuko gas ez-fluordunen ABP_a kalkulatzeko, IPCCren Lehenengo Ebaluazio-txostenean argitaratutako balioak aplikatuko dira. Ikus *Climate Change, The IPCC Scientific Assessment*, J.T. Houghton, G.J. Jenkins, J.J. Ephraums (ed.), Cambridge University Press, Cambridge (RU), 1990.

hozte-tresnak, aire egokituak edo bero-ponpak, suteetatik babesteko sistemak edo tentsio altuko kommutazio-ekipamenduak konpontzeko, mantentzeko eta kargatzeko edota berotegi-efektuko gas fluordunen bidez disolbatzaileak garraiatu edo biltegitratzeko ere.

- 14) «berreskuratzea»: berotegi-efektuko gas fluordunak jaso eta biltegitratzea, makina, tresna eta edukiontzietatik datozenak, esaterako.
- 15) «birziklatzea»: oinarrizko garbiketa-prozeduraren bitartez berreskuratutako berotegi-efektuko gas fluordunak berriz erabiltzea.
- 16) «birsortzea»: berreskuratutako berotegi-efektuko gas fluordunak berriz tratatzea, kalitate-arau jakin bat bete dezaten.
- 17) «suntsitzea»: prozedura horren bidez, berotegi-efektuko gas fluordun bat sustantzia egonkor bat edo gehiago (berotegi-efektuko gas fluorduna ez dena) bilakatzen da, edo deskonposatu egiten da, osorik edo zati handi batean.
- 18) «aplikazio edo tresna finkoak»: funtzionamenduan daudenean normalean hara eta hona mugitzen ez diren aplikazioak edo tresnak.
- 19) «aerosol berritzaileak»: 94/48/EE zuzentarauaren eranskinean ⁽¹⁾ aipatutako aerosol-sorgailu merkaturatuak eta jendeari saltzekoak (jolaserako edo hornigai modura).

3. artikulua

Kontrolatzea

1. Aplikazio finko hauen operadoreek: 1. eranskinean jasotako berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten hozte-tresnak, aire egokituak eta bero-ponpak, beren zirkuituak barne, eta suteen kontra babesteko sistemak ere bai, teknikoki bideragarriak diren eta gastu desproporzionaturik ez dakarten neurri guztietara joko dute hau egiteko:

- a) Gas horien ihesak saihesteko.
- b) Detektatutako ihesak lehenbailehen konpontzeko.
2. 1. paragrafoan aipatutako aplikazioen operadoreek bermatuko dute ihes-kontrola 5. artikuluan finkatutako baldintzak betetzen dituzten langileek egingo dutela, eskema honen arabera:
- a) Berotegi-efektuko gas fluordunetan 3 kg edo gehiago dituzten aplikazioei gutxienez 12 hilean

behin egingo zaie ihes-kontrola; hori ez zaie aplikatuko hermetikoki itxitako sistemadun tresnei, baldin eta hala etiketatuta badaude eta berotegi-efektuko gas fluordunetan 6 kg baino gutxiago badituzte.

- b) Berotegi-efektuko gas fluordunetan 30 kg edo gehiago dituzten aplikazioei gutxienez sei hilean behin egingo zaie ihes-kontrola.
- c) Berotegi-efektuko gas fluordunetan 300 kg edo gehiago dituzten aplikazioei gutxienez hiru hilean behin egingo zaie ihes-kontrola.

Ihesa konpontzen denetik hilabeteko epean beste ihes-kontrol bat egingo zaie aplikazioei, ondo konpondu direla ziurtatzeko.

Paragrafo honetan «ihes-kontrola» diogunean zera ulertuko dugu, tresna edo sistemak ihesik baduen aztertu dela, zuzeneko edo zeharkako neurketa-metodoak erabiliz eta ihes-arrisku handiena duten tresna edo sistemaren parteetan jarriz arreta gehien. Ihes-kontrolerako erabilitako zuzeneko edo zeharkako neurketa-metodoak zehaztu egin behar dira 7. paragrafoan aipatutako kontrol estandarreko baldintzetan.

3. Lehenengo paragrafoan aipatutako aplikazioetako operadoreek, aplikazio horiek berotegi-efektuko gas fluordunetan 300 kg edo gehiago badituzte, ihesak detektatzeko sistemak instalatu behar dituzte. Ihesak detektatzeko sistema horiei gutxienez 12 hilabetean behin egingo zaie kontrola, ondo funtzionatzen dutela bermatzeko. 2007ko uztailaren 4a baino lehen instalatutako suteen kontra babesteko sistemek ihesak detektatzeko sistemak izan behar dituzte gehienez ere 2010eko uztailaren 4rako.

4. Ihesak detektatzeko sistema egokia izan eta ondo funtzionatzen duenean, 2. paragrafoa b) eta c) idatz-zatietan aipatutako kontrolen maiztasuna erdira murriztuko da.

5. Suteen kontra babesteko sistemek ISO 14520 arauaren arabeko ikuskapen-erregimena dutenean, ikuskapen horiek berdin-berdin beteko dituzte Erregelamendu honetako baldintzak, betiere maiztasun berdina edo handiagoa badute.

6. 1. paragrafoan aipatutako aplikazioetako operadoreek, aplikazio horiek berotegi-efektuko gas fluordunetan 3 kg edo gehiago badituzte, hau guztia erregistratu behar dute: zer motatako berotegi-efektuko gas fluordunak instalatu diren eta zenbat, zer kantitate gehitu den, eta zer kantitate berreskuratzen den mantentze-lanetan, konpontzerakoan eta behin betiko ezeztatzerakoan. Beste datu garrantzitsu batzuk ere erregistratu behar dituzte, hala nola: mantentze- edo konpontze-lanak egin dituen enpresa edo teknikariaren izena; 2., 3. eta 4. paragrafoen arabera eginiko ihes-kontrolen emaitzak eta datak; eta 2. paragrafoa b) eta c) idatz-zatiek aipatutako aplikazioetako tresna finkoak identifikatzeko balio duen informazioa. Agintaritzak eskudunak eta

¹ 94/48/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1994ko abenduaren 7koa, 76/769/EEE Zuzentaraua hamahirugarren aldiz aldatzen duena; azken zuzentzarau hori substantzia eta prestakin arriskutsu jakin batzuen merkaturatzea eta erabilera mugatzen duten estatu kideen legezko, arauzko eta administraziozko xedapenak hurbiltzen ditu (EO L 331, 1994-12-21ekoa, 7. or.).

Batzordeak ikusi ahal izango dituzte erregistro horiek, eskaera egin ondoren.

7. Gehienez ere 2007ko uztailaren 4rako, Batzordeak ihes-kontrol estandarerako baldintzak finkatuko ditu artikuluko 1. paragrafoan aipatutako aplikazio bakoitzerako, 12. artikuluko 2. paragrafoan azaldutako prozeduraren bitartez.

4. artikulua

Berreskuratzea

1. 5. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituzten langile akreditatuek modu egokian berreskuratuko dituzte berotegi-efektuko gas fluordunak, birziklatu, birsortu edo suntsitu egingo direla bermatzeko. Tresna finko hauen operadoreen ardura izango da horretarako neurriak hartzea:

- a) Hozte-tresnen, aire egokituaren eta bero-ponparen hozte-zirkuituak.
- b) Berotegi-efektuko gas fluordunen bidezko disolbatzaileak dituzten tresnak.
- c) Suteen kontra babesteko sistemak eta itzalgailuak.
- d) Tentsio altuko kommutazio-ekipamenduak.

2. Gas fluordunen edukiontzi bat, kargagarria izan ala ez, bere balio-bizitzaren amaierara iristen denean, edukiontzia gasak garraiatzeko edo biltegitzeko erabiltzen duen pertsonak neurriak hartuko ditu hango hondakin-gasak ondo berreskuratuzko, birziklatu, birsortu edo suntsitu direla bermatze aldera.

3. Beste produktu edo tresna batzuetan dauden berotegi-efektuko gas fluordunak (tresna mugikorretan daudenak barne, operazio militarretarako balio ez badute behintzat) behar bezala gaitutako langileek berreskuratuko dituzte, betiere teknikoki bideragarria bada eta kostu desproporzionatuak sortzen ez baditu; xedea birziklatu, birsortu edo suntsituko direla bermatzea da.

4. 1etik 3ra arteko paragrafoen arabera, berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten tresnak deuseztatu baino lehen berreskuratuko dira gasak (birziklatu, birsortu edo suntsitu), edota konpontze- edo mantentze-lanak egiterakoan, bestela.

5. artikulua

Prestakuntza eta ziurtagiria

1. Gehienez ere 2007ko uztailaren 4rako, prestakuntza- eta ziurtagiri-programak elkarren artean onartzeko gutxieneko baldintzak finkatu behar dira. Horretarako, lehenik eta behin, estatu kideengandik jasotako informazioan oinarritu beharko da eta

sektore egoki guztiak kontsultatu, eta gero, 12. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraitu beharko zaio. Baldintza horiek 3. artikuluko 1. paragrafoan azaldutako tresna eta sistemak instalatu, mantendu eta konpontzea dagokien enpresek nahiz langileek bete behar dituzte, bai eta 3. eta 4. artikuluetako jardueretan aritzen diren langileek ere.

2. Gehienez ere 2008ko uztailaren 4rako, estatu kideek prestakuntza eta ziurtagirietarako beren baldintza propioak finkatu edo onartuko dituzte 1. paragrafoan aipatutako gutxieneko baldintzetatik abiatuz. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote beren prestakuntza- eta ziurtagiri-programak. Estatu kideek onartu egingo dituzte beste estatu kide batzuetan emandako ziurtagiriak, eta ez dute zerbitzuak emateko askatasuna edo kokatzeko askatasuna murriztuko beste estatu kide batean emandako ziurtagiria dela bide.

3. Aplikazioaren operadoreak langileek beharrezko ziurtagiria (2. paragrafoan aipatutakoa) lortu dutela ziurtatuko du. Hortaz, ondo ezagutu behar ditu erregelamendua eta arau aplikagarriak, eta, halaber, gai izan behar du berotegi-efektuko gasen emisioa prebenitzeko nahiz berreskuratuzko eta tresnei dagozkien mota eta tamaina seguru manipulatzeko.

4. Gehienez ere 2009ko uztailaren 4rako, estatu kideak behar bezala bermatuko dute 3. eta 4. artikuluetan aurreikusitako jardueretan aritzen diren enpresek ez dutela entregarik jasoko baldin eta kasuan kasuko langileek artikuluko 2. paragrafoan aipatutako ziurtagiriak ez badituzte .

5. Gehienez ere 2007ko uztailaren 4rako, artikuluko 2. paragrafoan aipatutako jakinarazpenaren formatua erabakiko du Batzordeak 12. artikuluko 2. paragrafoan azaldutako prozeduraren bitartez.

6. artikulua

Txostenak aurkeztea

1. Gehienez ere 2008ko martxoaren 31rako, eta urtero harrezkero, berotegi-efektuko gas fluordunen ekoizle, inportatzaile eta esportatzaile guztiek txosten bat aurkeztuko diote Batzordeari eta kopia bat eman beren estatu kideko agintaritzara eskudunari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira aurreko urte zibilari buruz:

- a) Urtean berotegi-efektuko gas fluordunetan tona bat baino gehiago ekoizten dutenek hau jakinarazi beharko dute:

— Guztira berotegi-efektuko gas fluordunen zenbateko ekoizpena egin duen Erkidegoan eta substantzia zein aplikazio-kategoriatarako erabiliko den batez ere (adibidez, aire egokitu mugikorra, hoztea, aire egokitua, aparra, aerosolak, tresna elektrikoak, erdieroaleen fabrikazioa, disolbatzaileak eta suteen kontrako babesa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- Berotegi-efektuko gas fluordunen zein kantitate merkaturatu duten Erkidegoan.
 - Berotegi-efektuko gas fluordunen zein kantitate birziklatu, birsortu edo suntsitu duten.
- b) Berotegi-efektuko gas fluordunetan tona bat baino gehiago inportatzen dutenek (inportatzaileek nahiz ekoizle inportatzaileek) hau jakinarazi beharko dute:
- Berotegi-efektuko gas fluordunen zein kantitate inportatu edo merkaturatu duen Erkidegoan, eta substantzia zein aplikazio-kategoriatarako erabiliko den gehienbat (adibidez, aire egokitu mugikorra, hoztea, aire egokitua, aparra, aerosolak, tresna elektrikoak, erdieroaleen fabrikazioa).
 - Erabilitako berotegi-efektuko gas fluordunen zein kantitate inportatu duten birziklatu, birsortu edo suntsitzeko.
- c) berotegi-efektuko gas fluordunetan tona bat baino gehiago esportatzen dutenek (esportatzaileek nahiz ekoizle esportatzaileek) hau jakinarazi beharko dute:
- Berotegi-efektuko gas fluordunen zein kantitate esportatu duten Erkidegotik.
 - Erabilitako berotegi-efektuko gas fluordunen zein kantitate esportatu duen birziklatu, birsortu edo suntsitzeko.

2. Gehienez ere 2007ko uztailaren 4rako, Batzardeak artikuluko 1. paragrafoan aipatutako txostenen formatua erabakiko du, 12. artikuluko 2. paragrafoan azaldutako prozeduraren bitartez.

3. Batzardeak hartu beharreko neurriak hartuko ditu jakinarazten dizkioten datuen konfidentzialtasuna babesteko.

4. Estatu kideek txostenak aurkezteko sistemak finkatuko dituzte erregelamendu honetan jasotako sektore egokietarako, emisioei buruzko datuak lortzeko ahal den neurrian.

7. artikulua

Etiketatzea

1. 67/548/EEE Zuzentarauan ⁽¹⁾ eta 1999/45/EE Zuzentaruena ⁽²⁾ substantzia eta prestakin

¹ 67/548/EEE Zuzentaruena, Kontseiluarena, 1967ko ekainaren 27koa, Substantzia arriskutsuak sailkatu, enbalatu eta etiketatzeari buruzko legezko, arauzko eta administraziozko xedapenak hurbiltzen dituena (EO 196, 1967-08-16koa, 1. or.). Zuzentaru hori Batzardearen

arriskutsuen etiketatzeari buruz xedatutakoa betetzeari utzi gabe, berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten produktu eta tresnak (2. paragrafoan banan-banan aipatuak) ez dira merkaturatuko berotegi-efektuko gas fluordunen izendapen kimikoa identifikatu ezean, onartutako industria-nomenklatura darabilen etiketaren bidez identifikatu ere. Etiketa horrek garbi adieraziko du produktuak edo tresnak Klima-aldaketari buruzko Kyotoko Protokoloan jasotako berotegi-efektuko gas fluordunak dituela, bai eta kantitatea ere. Ohar hori modu argian eta ez ezabatzeko moduan egongo da produktuaren edo tresnaren gainean, berotegi-efektuko gas fluordunak kargatzeko edo berreskuratzeko zerbitzuguneen ondoan, edota berotegi-efektuko gas fluorduna duen produktu edo tresnaren aldean. Hermetikoki itxitaiko sistemek beren etiketa izango dute.

Produktu edo tresna horiekin batera datozen erabilera-eskuliburuetan informazioa emango da berotegi-efektuko gas fluordunen gainean, bai eta atmosfera berotzeko duen potentzialaren gainean ere.

2. 1. paragrafoa mota hauetako produktu eta tresnei aplikatuko zaie:

- a) Perfluorokarburoak dituzten hozteko produktu eta tresnak edo perfluorokarburoak dituzten prestakinak.
- b) Aire egokiturako eta hozteko produktu eta tresnak (motor-ibilgailuetarako aire egokituko sistemak izan ezik), bero-ponpak, suteen kontra babesteko sistemak eta itzalgailuak, baldin eta produktu eta tresna horiek hidrofurokarburoak badituzte edota hidrofurokarburodun prestakinak badituzte.
- c) Sufre hexafluoruroa duten edo sulfre hexafluorurodun prestakinak dituzten konmutazio-ekipamenduak.
- d) Berotegi-efektuko gas fluordunen edukiontzi guztiak.

3. Etiketatzeko modua 12. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako prozeduraren arabera finkatuko da. 1. paragrafoan finkatutako etiketatzeko baldintzez gain, beste batzuk jarri behar badira, prozedura horrexeri jarraitu beharko zaio. 12. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako komiteari proposamena aurkeztu baino lehen, Batzardeak berriro aztertuko du etiketetan ingurumen-informazio gehigarria jarri ala ez, atmosfera berotzeko potentziala barne. Horretarako,

2004/73/EE Zuzentaruak aldatu zuen azkenekoz (EO L 152, 2004-04-30ekoa, 1.or.).

² 1999/45/EE Zuzentaruena, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1999ko maiatzaren 31koa, prestakin arriskutsuak sailkatu, ontziratuta eta etiketatzeari buruz estatu kideek dituzten legezko, arauzko eta administraziozko xedapenak hurbiltzen dituena (1999-07-30eko L 200 AO, 1. or.).

Zuzentaru hori Batzardearen 2006/8/EE zuzentaruak aldatu zuen azkenekoz (EO L 19 2006-01-24koa, 12. or.).

ondo kontuan izango ditu produktu eta tresnei aplikatzeko moduko etiketatze-sistemak, 2. paragrafoan banan-banan aipatutakoak.

8. artikulua

Erabilera kontrolatzea

1. 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera debekatuta egongo da sufre hexafluoruroa edo horren prestakinak erabiltzea magnesioa presio bidez moldeatzeko, erabilitako sufre hexafluoruro kantitatea urtean 850 kg baino gutxiago izan ezean.

2. 2007ko uztailaren 4tik aurrera debekatuta egongo da sufre hexafluoruroa edo horren prestakinak erabiltzea ibilgailuetarako pneumatikoak betetzeko.

9. artikulua

Merkaturatzea

1. II. eranskinean banan-banan aipatutako berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten edo horien arabera funtzionatzen duten produktu eta tresnak merkaturatzea debekatuta egongo da, eranskin horretan zehazten den eran.

2. Zenbait produktu eta tresna merkaturatzeko debekua indarrean jarri baino lehen fabrikatu zirela frogatzen bada, ez da 1. paragrafoa aplikatuko.

3. a) Baliteke 2005eko abenduaren 31rako estatu kide batek artikulua honetan aurreikusitakoak baino neurri nazional zorrotzagoak hartu izatea erregelamendu hau aplikatzeko esparruaren barruan eta berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten edo horien arabera funtzionatzen duten produktu edo tresnak merkaturatzearekin lotuta. Hori gertatuz gero, estatu kide horrek 2012ko abenduaren 31ra arte jarraitu ahal izango du neurri nazional horiekin, betiere b) idatz-zatian xedatutakoa betetzen bada.

b) Gehienez ere 2007ko uztailaren 4rako, dena delako estatu kideak Batzordeari jakinaraziko dizkio neurri nazionalak eta horien arrazoiak. Neurri horiek bateragarriak izan beharko dute Tratatuarekin. Batzordeak neurri horiei buruzko informazio egokia emango dio 12. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako komiteari.

10. artikulua

Berrikustea

1. Ibilgailu automobilen aire girotuko sistemetan (Kontseiluaren 70/156/EEE Zuzentarauan, 1970eko otsailaren 6koan, motordun ibilgailuen eta beren atoiaren homologazioei buruz estatu kideek dituzten

legediak hurbiltzeari buruzkoan aipatutakoak ⁽¹⁾) eta beste garraiobide batzuetako hozte-sistematan dauden berotegi-efektuko gas fluordunen maileri eusteko edo horiek ordeztzeko ahaleginetan egiten diren hobekuntzen arabera, Batzordeak erregelamendu hau berrikusiko du eta txostena argitaratuko du gehienez ere 2007ko abenduaren 31rako. Egokitzen joz gero, lege-proposamenak ere aurkeztuko ditu txosten horrekin batera 2008ko abenduaren 31rako gehienez. Helburua 70/156/EEE Zuzentarauan jasotako ibilgailu automobilen aire egokituko sistemak ez bezalakoei eta garraiobideetako hozte-sistemei 3. artikuluko xedapenak aplikatzea da.

2. 2011ko uztailaren 4rako gehienera jota, Batzordeak txosten bat argitaratuko du Erregelamendu hau aplikatzen hartutako esperientzian oinarrituz. Txosten horretan gai hauek landuko dira batik bat:

a) Berotegi-efektuko gas fluordunen emisioei eta pentsatutako emisioei buruzko neurrien eragina ebaluatuko da, eta neurri horien errentagarritasuna aztertu.

b) Etorkizuneko IPCCren ebaluazio-txostenak kontuan hartuta, I. eranskinean beste berotegi-efektuko gas fluordun batzuk sartu behar diren aztertuko da.

c) Estatu kideek finkatutako prestakuntza- eta ziurtagiri-programak ebaluatuko dira 5. artikuluko 2. paragrafoari jarraituz.

d) Produktu eta tresnen berotegi-efektuko gas fluordunen emisioak (batez ere aparrak) kontrolatzeko Erkidegoko arauak egin behar diren aztertuko da, eta produktu eta tresnak diseinatzeak baldintza teknikoak finkatu behar diren ere bai.

e) 3. artikuluari jarraiki operadoreek aplikatutako kontrol-neurriek zer eraginkortasun duten ebaluatuko da, eta instalazioetarako gehienezko ihes-indizea ezartzerik badagoen erabakiko da.

f) 6. artikuluko 1. paragrafoan ikusi ditugun txostenak aurkezteko baldintzak ebaluatuko dira, batez ere, tona baten muga kuantitatiboa. Egoki iritzi gero, baldintza horiek aldatzeko proposa daiteke. Horrez gain, agintaritzak eskudunek emisioak aurreikusiko dituzte lagin adierazgarrietan oinarrituz, eta horiek Batzordeari jakinarazteko premia aztertuko da, baldintza horien aplikazio praktikoa hobetze aldera.

g) Berotegi-efektuko gas fluordunen emisioak prebenitzeko eta gutxienezko murrizteko teknika eskuragarriak eta ingurumen-praktika onenak deskribatzen dituzten dokumentuak idatzi eta zabaltzeko premia aztertuko da.

¹ EO L 42, 1970-02-23koa, 1. or. Zuzentaru hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/64/EE Zuzentaruak aldatu zuen azkeneko (EO L 310, 2005-11-25koa, 10. or.).

- h) Garapen teknologikoaren laburpena ere egingo da, bai Erkidegoan eta bai nazioartean; batez ere, gai hauen ingurukoa: aparrak, hartutako esperientzia, ingurumen-baldintzak eta barne merkatuaren funtzionamenduan izan ditzakeen eraginak.
- i) Hondarretako moldeaketan, moldeaketa iraunkorrean eta presiozko moldeaketan sufre hexafluoruroa ordezteko teknikoki bideragarria eta ekonomikoki errentagarria den ebaluatuko da. Eta egokitzen joz gero, 8. artikuluko 1. paragrafoa berriz aztertzea proposatuko da gehienez ere 2009ko urtarrilaren 1erako. Era berean, 2010eko urtarrilaren 1erako asko jota, berrikusi egingo da 8. artikuluko 1. paragrafoan agertzen den salbuespen, eskura dauden alternatiben inguruan gerora egingo diren ebaluazioak aintzat hartuta.
- j) II. eranskinean berotegi-efektuko gas fluordunak dituzten produktu eta tresna gehiago sartzeko teknikoki bideragarria eta ekonomikoki errentagarria den aztertuko da, energia-eraginkortasuna kontuan hartuta. Eta, egoki irudituz gero, II. eranskina aldatzeko proposamenak egingo dira, produktu eta tresna horiek ere sartze aldera.
- k) Berotegi-efektuko gas fluordunen atmosfera berotzeko potentzialari buruz Erkidegoak eginiko xedapenak aldatu behar diren ala ez aztertuko da, eta edozer aldatzekotan, kontuan hartuko dira aurrerapen teknologiko eta zientifikoak, bai eta industria-produktuak planifikatzeko epeak errespetatu beharra ere.
- l) Berotegi-efektuko gas-emisioak murriztea dela-eta nazioartean hartutako konpromiso zahar eta berriak ikusirik, Europako Erkidegoak eta estatu kideek beste ekintzarik egin behar luketen ebaluatuko da.
3. Beharrezkoa izanez gero, Batzardeak proposamen egokiak egingo ditu erregelamendu honetako xedapenak berrikusteko.

11. artikulua

Erkidegoko Zuzenbideari kalterik egin gabe —batez ere, laguntza publikoei buruzko Erkidegoko arauak eta Arau eta erregelamendu teknikoaren alorrean eta informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko arauen alorrean informazio-prozedura bat finkatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1998ko ekainaren 22ko 98/34/EE Zuzentarauari ⁽¹⁾— estatu kideek beste produktu eta tresna batzuk merkaturatzea sustatu ahal izango dute: atmosfera berotzeko potentzial handia duten gasen ordezkioak darabiltzatenak, eraginkorrak eta berritzaileak direnak eta klima-inpaktua gehiago murrizten dutenak.

¹ EO L 204, 1998-07-21ekoa, 37. or. Zuzentarau hori 2003ko Atxikitze Aktak aldatu zuen azkenekoz.

12. artikulua

Komitea

- 2037/2000 (EE) Erregelamenduko 18. artikulua arabera sortutako komiteak lagunduko dio Batzardeari.
- Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5 eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.
- Komiteak bere barne-erregelamendua onartuko du.

13. artikulua

Zigorrak

- Estatu kideek erabakiko dute zein zigor ezarri behar diren erregelamendu honetako xedapenak betetzen ez badira, eta neurri guztiak hartuko dituzte zigorra betetzen dela bermatzeko. Zigorak eraginkorrak, proportzionatuak eta disuasiozkoak izango dira.
- Estatu kideek batzardeari jakinaraziko diote zigoren erregelamendua 2008ko uztailaren 4rako asko jota, eta zerbait aldatuz gero, luzatu gabe adieraziko diote.

14. artikulua

9. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, estatu kideek babes handiagorako neurriak izan edo gehitu ahal izango dituzte Tratutako 95. artikuluan finkatutako prozeduren arabera (Erregelamendu honetako 7, 8 eta 9. artikuluekin lotuta) edota Tratutako 176. artikulua arabera (Erregelamendu honetako beste artikulua batzuekin lotuta).

15. artikulua

Indarrean sartzeko

Erregelamendu hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik 20 eguneko epean sartuko da indarrean.

2007ko uztailaren 4tik aurrera aplikatu ahal izango da, 9. artikulua eta II. eranskina izan ezik, horiek 2006ko uztailaren 4tik aplikatu ahal izango baitira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon eginia 2006ko maiatzaren 17an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean
Presidentea
H. WINKLER

